

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. ("BBVA") beharrezkoak diren baimenak dituen eta Banco de España-ko Banku eta Bankarien Erregistro Berezian 3 zenbakiarekin erregistratuta dagoen bankua da, eta bere kodetze-zenbakia 182 da.

1. Sarrera

Inbertsio-zerbitzuen enpresak ("*Erakundeak*") finantza-tresnen inguruko aginduak egikaritzea arautzen dituen europar araudia (2014/65/CE Zuzentaraua, 2017/565/CE Arau Delegatua eta haiek garatzen dituen gainerako arauak, denak batera "*MiFID 2*"), euren bezeroei (aurrerantzean, "*Bezeroak*") ordenak egikaritzeko zerbitzua emateagatik ahalik eta emaitza onena eskaintzeko obligazioa betetzea ahalbidetuko dien politika barneratzea eta aplikatzea dakar. Hortaz, inbertsio-zerbitzuen enpresek ordenak egikaritzeko politika ("*Aginduak Egikaritzeko Politika*") edo aginduak jaso eta transmititzeko politika ("*Aginduak Jaso eta Transmititzeko Politika*") bete beharko dute, Erakunde batek zuzenean egikaritzen dituen Bezeroaren aginduak Egikaritze-gune batean edo beste erakunde batean (aurrerantzean, "*Bitartekariak*") azken egikaritzerako.

Dokumentu honek BBVAren Aginduak egikaritze Politikaren eta Aginduak Jasotzeko eta Transmititzeko Politikaren alderdi esanguratsuenak laburbiltzen ditu (aurrerantzean, bi politikei "*Egikaritze-politika*" edo "*Politika*" esango zaie).

BBVAk bere bezeroen eskura jartzen ditu dokumentu honen eranskinean biltzen diren Egikaritze eta Bitartekaritza Zentroen egikaritze-kalitateari buruzko azken datuak, zeinetara hurrengo estekaren bitartez sar daitezkeen. <https://www.bbvacib.com/rts28#regulation>

Politikak, 2019ko uztailaren 19ra arte indarrean zeuden BBVAren aginduak egikaritzeko eta jaso eta transmititzeko politikak eguneratzea eta aldatzea dakar, edukia MiFID 2-ak ezartzen dituen arauzko eskakizun berrietara egokitzeko eta baita BBVAk 2021eko urtarrilaren 18ra arte aurretik argitaratutako bestelako egikaritze-politiketara ere.

Dokumentu honetan maiuskulaz hasten diren terminoak erabiltzen dira eta beren esanahia, besterik adierazi ezean, MiFID2 araudian esleitutakoa izango da.

2. Egikaritze-politikaren irismena

Politika hau, oro har, Bezero txikizkariari eta Bezero profesionalari aplikatzen zaie, eta baliteke berezitasun jakin batzuk izatea Bezero sailkapenaren arabera eta tresna jakin motaren arabera, zeinak xehetasunez adieraziko diren dokumentu honetan.

BBVAk ez du agindu jakin bati buruzko egikaritze optimoa hornitzeko inongo obligaziorik hartzen, baldin eta agindu-emailea Aurkako alderdi Hautagarria bada.

Egikaritze-gidalerroak aplikatuko dira (i) BBVAk Bezeroaren agindu bat jasotzen duenean, Egikaritze-guneetan Finantza-tresnen inguruan aginduak betetzeko; (ii) BBVAk Bezeroaren aginduak bitartekari bati jakinarazten dizkionean, hark agindua Egikaritze-gunean betearaz dezan; edo (iii) BBVAk finantza-tresnak bere kontura negoziatzen dituenean, eta Bezeroak legez BBVAri uzten dizkiola uste duenean, non BBVAk haren interesak babestuko dituen operazioaren prezioa edo beste arlo batzuk zehazteko orduan.

Halaber, BBVAk, zorroak diskrezioz kudeatzeko kontratuen arabera, BBVAren izenean agindutako aginduekin lotuta aplikatuko du Politika.

BBVAk dokumentu honetan biltzen diren finantza-tresna motei (aurrerantzean, “*Tresnak*” edo “*Finantza-tresnak*”) aplikatzen dizkie Gidalerroak. Dokumentu honen 3.2.4. atalean (“Bi alderdien artean negoziatutako Finantza Tresnak”) BBVAk Bezeroekin euren kontura negoziatzen dituen operazioei Gidalerro hauek nola aplikatuko dizkien azaltzen da.

3. Oinarri orokorrak

3.1. Egikaritze optimoko oinarri orokorrak

BBVAk Bezeroen aginduen egikaritze ahalik eta onenak lortzeko beharrezko arrazoizko neurri guztiak hartuko ditu. Egikaritze-politikaren xedea BBVAk helburu hori lortzeko jarraitzen duen estrategia definitzea da.

Politika honetan markatutako irizpideak betetzea modu orokorrean lortu behar da baina ez BBVAk Bezeroetatik jasotako agindu bakoitzerako. Hau da, BBVAk ez du Bezeroengandik jasotzen dituen banakako agindu guztietarako emaitza onena eskuratzeko obligaziorik, Bezeroen agindu guztiei Politikan bildutako oinarri orokorrak aplikatzekoa baizik, Egikaritze-politikan argitaratutako irizpideekin modu sendoan emaitza hobea eskuratzeko xedearekin.

Emaitzarik onena lortzeko, baliteke Bezeroen zenbait agindu merkatu arautuetatik kanpo edo beste Negoziazio-guneetan l egikaritzea (burtsatik kanpoko tresnen gaineko aginduak), BBVAren konturako agindua gauzatzeko kasua barne. BBVAk, agindu horiek Negoziazio-guneetatik kanpo egikaritzean, Bezeroari proposatutako prezioaren parekotasuna egiaztatuko du merkatuko datuen bilketarekin eta, ahal duen heinean, pareko produktuekin edo konpara daitezkeenekin alderatuko ditu. BBVAk berariazko baimena eskatuko die Bezeroen aginduak Negoziazio-guneetatik kanpo egikaritzeko, eta baimena Bezeroarekin akordio orokor gisa edo operazio bakoitzerako akordio gisa lortu ahal izango da.

¹MiFID 2 barruan “*Negoziazio-gune*” gisa sartzen dira Merkatu Arautua eta Kontratatzeko Sistema arautuak ere.

Aurreko puntuan aurreikusitako kasuetan, egikaritzeak kontrako alderdiaren 2 arriskuak, likidezia 3 arriskuak eta kitapenekoak 4 eragin ditzake, besteak beste. BBVAko Bezeroek eskatuta, egikaritze-modalitate horren ondorioen informazio osagarria emango da.

Halaber, BBVAk Errenta Finkoko eta Errenta Aldakorreko tresnen harpidetza-aginduak merkatu primarioan egikaritu ahal izango ditu⁵. BBVAri merkatu primario batean egikaritzeko emandako aginduak jaulkitzaileak emandako termino eta baldintzen, BBVAren eta Bezeroaren artean lortutako adostasunen eta Bezeroak emandako berariazko jarraibideen arabera egikaritutako dira.

BBVAk Bezeroen aginduak barneratu ahal izango ditu zenbait tresnetan eta aldizka bere kabuz egikaritu ahal izango ditu, Bezeroentzat ahalik eta emaitza onena lortu dezakeela uste badu edo, modu antolatuan eta sistematikoan, BBVAk Bezeroei kotizazioak ematen dizkienean, Barneratzaile Sistematikoko gisa jarduten duenean⁶.

BBVAk ez die bere Bezeroei Egikaritze-zentroak justifikatu gabe diskriminatzen dituzten komisiorik aplikatuko.

BBVAk aginduak egikaritzerakoan izan ditzakeen zailtasunen berri emango die bere Bezeroei.

3.2. Egikaritze optimoa eragiten duten faktoreak

Bezeroentzako emaitza onena lortzeko xedez, faktore hauek hartuko dira kontuan:

■ Tresnaren prezioa; ■ kostuak (besteak beste, egikaritzearekin lotutako kostuak eta konpentsazio/likidazio kostuak); ■ Tresnaren likidezia (hau da, Egikaritze zentro bakoitzean erabilgarri dagoen agindu kopurua eta, merkatuan duen sakontasuna); ■ aginduaren bolumena (aginduan parte hartzen duen Tresna kopurua); ■ egikaritze eta likidazio probabilitatea; ■ egikaritzearen bizkortasuna (transakzioak bizkor egikaritzeko gaitasuna); ■ likidazioaren ezaugarriak; eta ■ agindua egikaritzeko kontuan hartu behar den beste edozein xehetasun.

Aipatutako faktoreen garrantzia zehazteko orduan, Bezeroaren ezaugarriak ere hartuko dira kontuan, Txikizkako Bezeroa edo Profesionala den barne, eta baita aginduaren ezaugarriak, tresnen ezaugarriak eta agindu hori zuzenduko den Egikaritze-guneen ezaugarriak ere.

Txikizkako Bezeroen aginduak gauzatzeko ahalik eta emaitza onena guztizko ordainen arabera zehaztuko da, Errenta Aldakorreko tresnetan, ETFetan eta Warrant direlakoetan, zein Errenta finkoko tresnetan eta dibisan kotizatu gabeko etorkizunekoetan, Tresnaren prezioa eta egikaritzearekin lotutako kostuak kontuan

2 Bezeroaren agindu jakin bat haren aurka egikaritu den kontraparteak kontratatutako tresnaren ondoriozko ordainketa edota entrega obligazioak ez betetzeko edo berandu betetzeko arriskua da.

3 Likidezia arriskua agindua bere osotasunean ezin egikaritzean datza edota aginduak egikaritze-prezioan eragin negatiboa izatean.

4 Aurreikusita ez zegoen ekitaldiren bat edo aginduaren likidazioa atzera dezakeen gertakizunen bat gertatzeko arriskua.

5 Merkatu primarioan tresnen harpidetza gisa ulertzen da baloreak jaulki ondoren lehenengo erosketak, Bezeroaren eta baloreen jaulkitzaileen artean tituluen transferentzia bitartez egikaritzen bada, edo Bezeroaren eta baloreen jaulkitzaileen BBVA kontua jartzearen bitartez zeharka bada.

6 Hurrengo webgunean aurkituko dituzu BBVA barneratzaile sistematiko gisa zein tresnatan jarduten duen, hau da, bezeroen kontuaren kontra bezeroen aginduak hurrengo tresnetan egikaritzen ditu : <https://www.bbvacib.com/global-markets/regulation/documentos#regulation>

hartuta. Kostu horietan agindua gauzatzearekin zuzenean lotutako eta Bezeroari jasanarazitako gastu guztiak sartuko dira.

3.2.1. Errenta aldakorreko, ETFen eta Warranten tresnak

Errenta Aldakorreko, ETFen eta Warrant direlakoan tresnetarako Txikizkako Bezeroen aginduak gauzatzeko ahalik eta emaitza onena hurrengoan arabera zehaztuko dira, ordena honetan:

- Tresnaren prezioa eta zerbitzuaren kostuak (besteak beste, egikaritzearekin lotutako kostuak eta konpentsazio eta likidazio kostuak). kontraprestazio total gisa.
- Tresnaren likidezia (hau da, Tresnarentzat Egikaritze-gune bakoitzak eskura dituen aginduen bolumena eta merkatuan duen eragina);
- aginduaren bolumena (aginduaren barruko Tresnen kopurua);
- egikaritze- eta likidazio-probabilitatea;
- agindua bizkor egikaritzea (transakzioak bizkor egikaritzeko gaitasuna);
- likidazioaren ezaugarriak; eta
- agindua egikaritzeko kontuan hartu beharreko beste edozein xehetasun.

Errenta Aldakorreko, ETFen eta Warrant direlakoan tresnetarako Bezero Profesionalen aginduak gauzatzeko ahalik eta emaitza onena hurrengoan arabera zehaztuko da, ordena honetan:

- Tresnaren prezioa;
- zerbitzuaren kostuak (besteak beste, egikaritze eta konpentsazio eta likidazioko kostuak);
- Tresnaren likidezia (hau da, Tresnarentzat Egikaritze-gune bakoitzak eskura dituen eta, merkatuan duen sakontasuna);
- aginduaren kopurua (aginduan parte hartzen duten Tresnen kopurua);
- egikaritze eta likidazio probabilitatea;
- egikaritzearen bizkortasuna (transakzioak bizkor egikaritzeko gaitasuna);
- likidazioaren ezaugarriak; eta
- agindua egikaritzeko kontuan hartu behar den beste edozein xehetasun.

3.2.2. Errenta Finkoko tresnak

Errenta Finkoko, ETFen eta Warrant direlakoan tresnetarako Txikizkako Bezeroen aginduak gauzatzeko ahalik eta emaitza onena hurrengoan arabera zehaztuko da, ordena honetan:

- Tresnaren prezioa eta kostuak (besteak beste, egikaritzearekin lotutako kostuak eta konpentsazio eta likidazio kostuak); kontraprestazio total gisa.
- Tresnaren likidezia (hau da, Tresnarentzat Egikaritze-gune bakoitzak eskura dituen

Dagokion Tresna egikaritzeko eta, merkatuan duen eragina); eta ■ aginduaren bolumena

Errenta Finkoko tresnetarako Bezero Profesionalen aginduak gauzatzeko ahalik eta emaitza onena hurrengoan arabera zehaztuko da, ordena honetan:

- Tresnaren prezioa;
- Tresnaren likidezia (hau da, Tresnarentzat Egikaritze-gune bakoitzak eskura dituen Dagokion Tresna egikaritzeko eta, merkatuan duen eragina);
- kostuak (besteak beste, egikaritze eta konpentsazio eta likidazioko kostuak); eta ■ aginduaren bolumena.

Aurreko faktoreez gain, BBVAk kontuan hartuko ditu agindua bizkor egikaritzea, likidatzea eta konpentsatzea, besteak beste, eta baita bezeroen aginduak egikaritzeko gainerako baldintzak ere.

3.2.3. Inbertsio Kolektiboko Erakunde Nazionaletan (IIC) partaidetzak

BBVAk Aginduak Jasotzeko eta Transmitzeko zerbitzua (RTO) ematen du Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan (IICak)⁷; IICren administrazioaz arduratzen den erakundeak edo kudeatzaileak islatuko du partaide edo akziodunen erregistro liburuan. Txikizkako Bezeroentzat eta Profesionalentzat emaitzarik onena lortzen da, hurrengoagatik:

- Prezioa IICSak arautzen dituen araudiaren arabera administrazioaz arduratzen den elkarte kudeatzaileak edo erakundeak kalkulaturako akzioaren edo partaidetzaren likidazio-balioa (VL) da
- Ez dago agindua egikaritzearekin lotutako bestelako kosturik, liburuxketan ager daitezkeenak izan ezik (esaterako, harpidetza edo itzulera komisioak).
- Egikaritze-bizkortasuna IIC administratzeaz arduratzen den elkarte kudeatzaileak edo erakundeak ematen du zuzenean, IICren berariazko araudiari jarraiki kalkulaturako VL bezeroaren aginduari esleitzean, harpidetza edo itzulera aginduaren unearan arabera, kontraturatuko den IICren liburuxkan zehaztutako mozketaren orduetan oinarrituta eta, atzerriko IICak direnean, merkaturatze-memorian oinarrituta. Atzerriko IICen erosketentzat, kontuan izan behar dira merkaturatzaileek ezarritako mozketaren orduak.
- Harpidetza eta itzulera eragiketarako IICaren administrazioaz arduraturako elkarte kudeatzaileak edo erakundeak egiten ditu, IICren liburuxkan aurreikusitako epeetan.
- BBVAk ziurtatzen du, IICek akzio edota partaidetza mota desberdinak jaulkitzen dituztenean, hautaturako klaseak kasuan kasuko zerbitzu motarako kudeatzaileek zehaztutakoak izango direla, bezeroarentzat ahalik eta klase onena aukeratzeko aldera, bai komisio aldetik bai egin beharreko operazioaren bolumenari dagokionez, eta baita funtsaren liburuxkan bildutako klase bakoitzerako gutxienezko zenbatekoei eta baldintzei dagokienez ere.

⁷ Gidalerro hauen printzipio orokorrak aplikatzen zaizkien IIC kotizatueterako salbuespena (ETFak eta SICAVak esaterako).

3.2.4. Dibisaren ganean kotizatu gabeko etorkizunekoak

BBVAk dibisan kotizatu gabeko etorkizuneko aginduak egikaritzeko zerbitzua eman dezake, bezeroarekin hitzartutako zenbait zerbitzu edo eragiketen markoan. Kasu horietan, aginduak gauzatzeko ahalik eta emaitza onena xehetasun hauek kontuan hartuta zehaztuko dira:

■ Tresnaren prezioak BBVAk kalkulaturako bidezko prezio bat izan behar du, produktu horren prezioa kalkulatzeko merkatuko datuak bilduz eta, ahal den heinean, pareko produktuen edo konpara daitezkeen produktuen prezioarekin alderatu beharko da. BBVAk eta Bezeroak besterik hitzartu ezean, dibisaren ganeako kotizatu gabeko etorkizunekoen primek, truke-tasek eta/edo gauzatzeko prezioek BBVAk aplikaturako marjina bat izan dezakete, BBVAk hartu dituen arriskuak, izan dituen kostuak eta emandako zerbitzuak konpentsatzeko. Marjina hori kalkulatzeko kontuan hartuko dira, beste faktore batzuen artean, BBVAk Bezeroari esleitzen dion kredituaren arriskua, gauzaturako bermeak (halakorik balego), eragiketaren tamaina, kontratatzeke unean dibisen pareko merkatuko baldintzak (hala nola antzeko tresnen prezioa, likidezia eta hegazkortasuna), eta BBVAren irabaziaren marjina.

Beraz, bezero desberdinek prezio desberdinak izan ditzakete dibisaren ganeako kotizatu gabeko etorkizunetarako, ezaugarri berekoak izanagatik.

■ Egikaritze-zentroa beti Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. izango da;

■ Epea, dibisa-parea eta dibisen ganeako kotizatu gabeko etorkizuneko gainerako baldintzak BBVAren eta bezeroaren artean hitzartuko dira.

3.2.5. Bi alderdien artean negoziaturako finantza-tresnak

BBVAk egikaritze optimoko baldintzak aplikaturako dizkie bere kabuz negoziatzen dituen⁸ finantza-tresna eratorriak eta Errenta Finkoko Tresnak Bezeroak uste duenean BBVAk bere interesak babesteko dituela operazioaren prezioa edo beste elementu batzuk zehazteko orduan. BBVAk, hurrengo baldintzen arabera zehaztuko du⁹ Bezeroak BBVAk finantza-tresnak negoziatzeko konfiantza duela uste duen kasuak zein diren:

■ Zein alderdik hasi duen transakzioa (Bezeroak edo BBVAk). Bezeroaren ekimena izan bada, litekeena da Bezero horrek BBVAren konfiantzarik ez izatea transakzioen interesak babesteko orduan.

■ Zein den merkatuko praktika. Esaterako, tresna horren negoziazioan merkatuko praktika ohikoena erakunde bat baino gehiagori kotizazioak eskatzea bada ('*shop around*') deritzona, BBVAk onartuko du ez dela oso probablea Bezeroak BBVAren konfiantza izatea transakzioan bere interesak babesteko.

⁸I eranskina, A atala, 2014/65/EE Zuzentarauko 3. puntua

⁹BBVAk Bezeroak legez BBVAren konfiantza duen ala ez zehazteko jarraituko dituen irizpideek Europako Batzordearen working document ESC-07-2007 delakoak MIFIDaren inplementazioari buruz zehazten dituen irizpideak jarraitzen dituzte:

- Prezioen gardentasuna. Tresna horretarako merkatuko prezioak argitaratuta badaude eta Bezeroak ezin baditu haiek atzitu, BBVAk ulertuko du ez dela oso probablea Bezeroak BBVAk konfiantza izatea transakzioan bere interesak babesteko.
- BBVAk bere zerbitzuen inguruan eta Bezeroaren eta BBVAren artean lortutako adostasunen baldintzen inguruko informazioa.

Aurreko analisiaren ondorioz, BBVAk zehaztu dezake, Bezero Profesionalei dagokienez gehienbat, zenbait Bezeroak BBVAk konfiantza legitimoa ez dutela bi alderdiren arteko negoziazioetan eta, ondorioz, ezin zaizkiela Gidalerro hauek aplikatu.

BBVAk uste badu bi alderdien arteko negoziatorako egikaritza optimoko baldintzak aplikatu daitezkeela, egikaritza optimo horren betebeharrak bezeroari proposatutako prezioaren ekitatea egiaztatzean bakarrik gauzatuko dira.

BBVAk ulertuko du Bezeroei eskainitako prezioak ekitatiboak direla merkatuko datuetan oinarritutako balorazio estandarreko metodoak aplikatuz, eta barruko bezero eta operazio motaren arabera onartutako metodoen arabera doitu eta dagokien gastuak eta kostuak gehituz kalkulatu direnean. Ahal den neurrian, BBVAk bere bezeroei eskainitako prezioak antzerako tresnentzat edo haiekin pareka daitezkeentzat merkatuko prezioekin alderatzen ditu.

3.3. BBVAk Bezeroei kobratu ahal izango dizkien kostuak eta gastuak

- BBVAk Bezeroei jasanarazi diezaieke, besteak beste, jasotako aginduaren izaera eta ezaugarrien arabera, hurrengo kostu eta gastuak: ■ BBVAren egikaritze-komisioak; ■ aginduen transmisio-zerbitzuen gastuak; ■ merkatuek, Bitartekariak eta likidazio-sistemak eragindako tasa eta kanonak;
- posta, telex, fax eta Swift gastuak, daudenean; ■ mezularitza sistemak erabiliz gero, sortutako gastuak, bezeroak hala eskatuta erabili badira;
 - garraio eta aseguru gastuak, eragiketek baloreen leku-aldatze fisikoa dakartzatenean; eta
 - fede-emaile publikoaren interbentzio-gastuak, eskriturenak eta kanpoko bestelako edozein kontzeptu justifikaturi dagozkion gastuak.

Agindu jakin bati aplikatu ahal izango zaizkien gastu eta tarifen inguruan informazio osagarria dago Bezeroen eskura, BBVAren webgunean (www.bbva.es).

4. Egikaritze-zentroen eta Bitartekarien hautaketa

4.1. Egikaritze Zentroak hautatzea

4.1.1. Errenta Finkoko, Errenta Aldakorreko, ETFen eta Warranten tresnak

Bezeroentzako ahalik eta emaitza onena lortu ahal izateko, 3. atalean aipaturiko faktoreez gain, Egikaritze-guneak aukeratzeko, ordena honetan hartuko dira kontuan: konpentsazio- eta likidazio-sistemen fidagarritasuna, Egikaritze-zentroekin lotura-azpiegituraren fidagarritasuna, Egikaritze-gunearen eragiketen automatizazio-maila, dagokien konpentsazio-ganbarekin egindako eragiketei lotutako arriskuak, agindua egikaritu, likidatu eta konpentsatzeko beharrezkoak diren gainerakoak.

4.1.2. Araututako merkatuetan negoziatutako finantza-tresna eratorriak

BBVAk Araututako Merkatu erabilgarrietan zerrendatutako eratorrien aginduak egikarituko ditu, beti ere BBVA kide denean. Egikaritze horrentzat beste aukerarik ez dagoenez, operazioen izaera kontuan hartuta, BBVAk ulertuko du merkatu horiek ahalik eta emaitza onena lortzea ahalbidetuko dutela.

4.2. Bitartekariak aukeratzea

BBVAk akordioak zehaztu ditu aginduak jasotzeko eta transmititzeko zerbitzua hainbat bitartekariarekin gauzatzeko, BBVA taldeko bitartekariak barne, zerbitu hori emateko modu optimorako bere obligazioak betetze aldera.

Bezero baten agindua bitartekari bati ematen zaionean, BBVAk aginduak egikaritzeko zerbitzuak eskatuko dizkio bitartekari horri, Bezeroak BBVAra igorritako agindua egikaritzeko Egikaritze-zentroan erabiltzeko. Halako egoeretan, BBVAk Bitartekariari agindua emateko transmisore gisa jardungo du eta azken hori izango da Egikaritze-zentroaren egikaritzearen arduradun, bitartekariari dagokion egikaritza gidalerroei jarraiki.

Bitartekari bat aukeratzeko, hurengo baldintzak bete behar dira nahitaez:

- BBVAk bere bezeroei zerbitzua emateko garrantzitsutzat hartzen dituen Egikaritze-zentroetara sarbidea izatea. Zentro horietarako sarbideaz gain, Egikaritze-zentro horietara sartzeko (zuzenean ala ez) eta finantza-tresnen eskuragarritasuna ere hartuko dira kontuan.
- Likidazio eta konpentsazio akordioak izatea, kontrapartida zentralako erakundeen edo Egikaritze-gune garrantzitsuen konpentsazioko eta likidazioko sistemen kide izanik.
- Sistematikoki lortzea bezeroen aginduentzako ahalik eta egikaritze onena. Horretarako, urtean behin berrikusiko dira bitartekari bakoitzak argitaratutako egikaritze-kalkulatzearen emaitzak.

BBVAk bitartekari bakoitzak eskainitako zerbitzu maila ebaluatuko du irizpide horietan oinarrituta, bezeroen aginduak transmitituko dizkien bitartekariak hautatzeko.

Dokumentu honen I. eranskinean BBVAk erabilitako Egikaritze-guneen zerrenda biltzen da Tresna bakoitzerako. Zerrenda hori eguneratuta eta eskuragarri egongo da BBVAren webgunean (www.bbva.es) eta bere bulego guztietan.

4.2.1. Errenta aldakorreko, ETFen eta Warranten tresnak

Bezeroentzat ahalik eta emaitza onena lortzeko helburuarekin, aurreko atalean aipaturiko faktoreez gain, kontuan izango dira bitartekariak aukeratzeko hurrengo faktoreak ere, honako ordenari jarraituz:

- Bitartekariari emandako bezeroaren aginduak egikaritzeko ahalmena;
- Egikaritze-zentroak atzitzeko eskaintza globala;
- Sistemen fidagarritasuna;
- Aginduak egikaritzeko erabilitako teknologia;
- Operazioei lotutako arriskuak; eta
- Agindua egikaritzeko, likidatzeko eta konpentsatzeko beste edozein kontsiderazio.

4.2.2. Errenta Finkoko tresnak

Ez da bitartekorik erabiliko Errenta Finkoko tresnen bezeroen aginduak gauzatzeko.

4.2.3. Araututako merkatuetan negoziatutako finantza-tresna eratorriak

Araututako Merkatuetan zerrendatutako eratorrien operazioak egikaritzeko, Altura Markets, S.V., S.A. izango da lehentasuna izango duen bitartekaria, 4.2. atalean aipaturiko baldintzak mundu osoan ematen baititu. Hauek dira bitartekari hori aukeratzeko orduan kontuan izan diren faktore nagusiak:

- Sistemen integrazio teknologikoa eta operatiboa BBVAkoekin.
- Aplikatuko den araudiaren eta hura betetzearen inguruko kontrol handiagoa, BBVAk Altura Markets, S.V., S.A.-n duen partaidetzarengatik
- BBVAk bere bezeroen aginduak artatzeko zerbitzua emateko garrantzitsutzat hartzen dituen Egikaritze-zentroetara sarbidea ematea.
- Administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu operatiboak (middle eta back office) eskaintzen dituen.
- Bitartekari horri emandako bezeroaren aginduak egikaritzeko ahalmena; iraganeko esperientzia positiboa izan da.
- Horrez gain, Altura Markets, S.V., S.A. ez den beste bitartekari bat erabiltzeak koste finkoak asko areagotuko lituzke, eta horrek inpaktu handia izan dezake bezeroari eskainitako zerbitzuan.

5. Bezeroentzako egikaritzeko berariazko argibideak

Bezero batek agindu batekin edo agindu baten alderdi jakin batekin lotutako jarraibide jakin batek eragotzi dezake BBVAk ahalik eta emaitza onena lortzeko agindua egikaritzeko edo Bitartekari bati transmititzeko orduan Politikaren testuinguruan aurreikusitako neurriak hartzea.

BBVAk berariazko argibideak dituen aginduak onartzeko eskubidea gordetzen du.

6. Politikaren berrikusketa

BBVAk politikaren eraginkortasuna gainbegiratu du aginduaren aplikazioan izan daitekeen edozein galera hautemateko eta, hala balegokio, zuzentzeko.

BBVAk aldian-aldian, aintzat hartutako Egikaritze-zentroak eta Bitartekariak, baita egikaritze-faktore bakoitzari edo Politikaren beste edozein alderdiren esleitutako garrantziari buruzkoa, bere Bezeroentzako balizko emaitza onenak sistematikoki eskuratzeko.

Berrikusketa hori, gutxienez, urtean behin egingo da eta, baita Politikaren arabera ahalik eta emaitza onenak Bezeroei eskaintzen jarraitzeko BBVAren gaitasunari eragiten dioten aldaketak gertatzen direnean ere.

BBVAk Bezeroen aginduen egikaritzearen kalitatea aztertuko du horretarako zehaztutako sistemen bitartez. BBVAk merkataritza harreman egonkorra duen Bezero guztiei jakinaraziko die Egikaritze-politikan egindako aldaketa garrantzitsu oro, dagokienean.

Urtean behin, tresna mota bakoitzarentzat, BBVAk Bezeroen aginduak egikaritu dituzten bost Egikaritzegune nagusien eta aginduak tramitatu dituzten bost Bitartekari nagusien zerrenda argitaratuko du, BBVAren web orriaren bitartez (www.bbva.es).

Gainera, BBVAk Bezeroen eskura jarriko du Egikaritze-politikari buruzko edozein informazio egoki BBVAren webgunearen bidez (www.bbva.es) edo bere edozein bulegotan.

7. Politikaren onspena

BBVAk Politikaren laburpena emango die politika honi lotutako Tresnak negoziatzea dakarten inbertsio-zerbitzuen Bezero guztiei.

2021eko urtarrilaren 18tik aurrera, edozein Bezerok BBVAri emandako agindu guztiek Aginduen Egikaritze-politika eta Aginduen Jasotze eta Transmisio Politika, dagokiona, onartzen dela esan nahi du.

8. Gobernantza- eta gainbegiratze-politika

Politika hau Taldearen Barne Kontrolerako Ereduaren mende egongo da. Kontrol-funtzioak neurrien, mekanismoen eta kontrolen diseinuan Politika hori betetzeko eta egoki aplikatzeko jarraipena egin eta egiaztatze beharrezko alderdiak barne hartzen direla, eta ahal dela neurri, mekanismo eta kontrol horiek automatikoak izan daitezela lehenetsiz. Bereziki, tarteka neurri, mekanismo eta kontrol horien eraginkortasuna egiaztatuko da, BBVAren aginduak egikaritzeko eta transmititzeko sistema eta prozedurek, oro har, Bezeroarentzako ahalik eta emaitza onenak lortu ahal izateko.

BBVAk barne-gobernuko esparru bat du, zeinak barne-aginduak egikaritzearen kalitate-emaitzak hiru hilabetez behin aurkeztea eta arlo horretan erabakiak hartzea hartzen dituen, dagokionean.

I. eranskina

I eranskinean BBVAk bezeroen aginduak egikaritzeko aukeratu dituen Egikaritze-zentroen zerrenda aurki dezakegu.

BBVAk I. eranskinean bildutako Egikaritze-zentro guztiak erabili ahal izango ditu bezero profesionalen aginduak egikaritzeko.

BBVAk ez ditu izarñoarekin (*) adierazitako Egikaritze-zentroak erabiliko txikizkako bezeroen aginduak egikaritzeko.

1 Balore negoziagarrien inguruko aginduentzako Egikaritze-guneak

Errenta aldakorra¹, ETFak eta Warrantak

¹Akzioak, ziurtagiriak, kotizatutako inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak eta bestelako ondare-tresnak

BBVA kide duten Egikaritze-guneak

- BATS & Chi-X Europe (Cboe Global Markets Inc.) BATE, CHIX, CHIC*
- Börse Berlin AG - Equiduct Trading - EQTA, EQTB
- Bolsa de Comercio de Santiago. XSGO
- Bolsa de Valores de Colombia. XBOG
- Bolsa de Valores de Lima SAA. XLIM
- Bolsa Mexicana de Valores S.A. de C.V. XMEX
- Borsa Istanbul Group. XIST
- Euronext (Euronext N.V.): Amsterdam, Lisboa, Paris. XAMS, XLIS, XPAR
- London Stock Exchange (London Stock Exchange Plc) SEAQ, SETS, IOBE, LSE, XLON
- Milan Stock Exchange (Borsa italiana S.p.A) MTAA, ETFP, XAIM, MTAH
- SIBE Sistema de Interconexión Bursátil Español (Sociedad de Bolsas, S.A., grupo BME). XBAR, XMAD, XBIL, XVAL, XLAT, MABX, XMCE
- Turquoise (Turquoise Global Holdings Limited) TRQX*
- XETRA German Stock Exchange (Frankfurter Wertpapierbörse) XETA, XETB, XETR, XFRA

BBVA kide ez duten Egikaritze-guneak

- AQUIS*
- Athens Stock Exchange (Athens Exchange)
- Bolsa de Comercio de Santiago. Chile, XSGO
- Bolsa de Sao Paulo. Brasil (BM&FBovespa).

Group) XATH

- Australian Securities Exchange (ASX XASX)
- Goldman Sigma X Multilateral Trading Facility*
- Hong Kong Stock Exchange (Hong Kong Exchanges and Clearing Limited) XHKG
- Indonesia Stock Exchange (Bursa Efek Indonesia) XIDX
- Instinet BlockMatch*
- ITG POSIT*
- Japan Stock Exchange (Japan Exchange Group, Inc.) Tokio. XTKS
- JASDAQ - OTC Japan Securities Dealers Association (Japan Exchange Group, Inc.). XJAS
- Johannesburg Stock Exchange (JSE Limited) XJSE
- Luxemburg Stock Exchange (Bourse Group) XLUX
- Malaysia Stock Exchange (Bursa Malaysia Berhad) XKLS
- Nasdaq OMX A/S. Copenague, Helsinki, Estocolmo. XCSE, XHEL, XSTO
- New Zealand Stock Exchange (NZX Limited) XNZE
- Osaka Securities Exchange (Japan Exchange Group, Inc.) XOSE
- Singapore Stock Exchange (Singapore Exchange Ltd.) XSES
- Smart Pool*

BVMF

- Euronext (Euronext N.V.): Bruselas. XBRU Limited)
- South Korea Stock Exchange (Korea Exchange KRX) XKRX
- Taiwan Stock Exchange (Taiwan Stock Exchange Corporation) XTAI
- Thailand Stock Exchange (The Stock Exchange of Thailand) XBKK
- Toronto Stock Exchange (TMX Group Limited) XTSX
- UBS Multilateral Trading Facility*
- USA BULLETIN BOARD Bulletin Board (.OB) (OTCBB) XOTC
- USA Pink Sheets (.PK) Market Makers (OTC Market Group) PINX
- USA. AMEX (American Stock Exchange) AMEX
- USA. NASDAQ (National Association of Securities Dealer Automated Quotation) XNAS
- USA. NYSE (New York Stock Exchange) XNYS
- Vienna Stock Exchange (Wiener Börse AG) WBAH
- Virt-X and SMI (SIX Swiss Exchange AG) XSWX, XVTX
- XONTRO (Deutsche Börse Group) FRAA, FRAB
- Casa de Bolsa BBVA Bancomer, S.A. de C.V., Grupo Financiero BBVA Bancomer

Bitartekariak

- Bank of America Merrill Lynch International Limited
- BBVA Valores Colombia S.A. Burtsako komisionista

- BBVA Continental Sociedad Agente Bolsa (Peru)
- GARANTI YATIRIM MENKUL KIYMETLER

A.Ş.

INSTINET Europe Limited

JEFFERIES International Limited

Morgan Stanley & Co. International PLC

Scotiabank (Txile)

Virtu ITG Europe Limited (VIEL)

Errenta finkoa²

²Zorra adierazten duten bonu eta tituluak

Egikaritze-zentroak

- Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.
- SEND (Errenta Finkoko Merkatuaren-BME AIAF zorra negoziatzeko sistema elektronikoa)

Bitartekariak

- Ez dute Bitartekaririk erabiltzen

2 Finantza-tresna eratorrien inguruko aginduentzako Egikaritze-guneak³

³ Aukeren, etorkizunen eta permuten (swap), Merkatu erregulatzailerak eta pareko tresnak eta lotutako eratorrien beste kontratuak

Egikaritze-zentroak

Merkatu arautu bateko finantza-tresna negoziatuen gaineko aginduetarako Egikaritze-zentroak Altura Markets SV., S.A. enpresak sarbidea ematen dien horiek dira.

Horrez gain, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.-k Egikaritze-zentro gisa jardungo du aukera, etorkizun eta trukatuaren kontratueterako (swap), pareko beste tresnetarako eta eratorrien beste kontratueterako, BBVAk tresna horietarako kotizazioak ematen dizkienean Bezeroei, eta Barneratzaile Sistematikoko gisa jardungo du¹⁰

Bitartekariak

- Altura Markets S.V., S.A.

¹⁰ Hurrengo webgunean BBVA barneratzaile sistematikoko gisa zein tresnatan jarduten duen aurkituko duzu, hau da, hurrengo tresnetan bezeroen kontuaren kontra bezeroen aginduak egikaritzen ditu: <https://www.bbvacib.com/global-markets/regulation/documentos#regulation>